2022 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA

PROYECTO DE PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI 2022

05. EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA
DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

- EUSKAL PARTZUERGO ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOA
  CONSORCIO CIENTÍFICO-TECNOLÓGICO VASCO
- SPRI TALDEA
  GRUPO SPRI
- EEE TALDEA
  GRUPO EVE
- EUSKADIKO KIROL PORTUAK
- URA
- IHOBE
- NEIKER
- HAZI
- ELIKA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

2022 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA

PROYECTO DE PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI 2022

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2021eko urria / 1a, octubre 2021
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ekonomia eta Ogasun Saila / Departamento de Economía y Hacienda
Internet: www.euskadi.eus
Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

05-EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA
05-DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE 8

Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas 9

Gastuen egoera-orria
El Estado de Gastos 141

1229 COVID-19k eragindako krisiaren aurkako neurriak
Medidas contra la crisis provocada por COVID-19 142

4421 Ingurumenaren Babesa
Protección del Medio Ambiente 143

5121 Uraren Plangintza eta Administrazioa
Planificación y Administración Hidráulica 149

5151 Portuak
Puertos 150

5411 Nekazaritza eta Arrantza Alorreko Ikerk. eta Gara.
Investigación y Desarrollo Agropesquero 154

5413 Teknologia
Tecnología 157

5414 Berrikuntzarako Funtsa
Fondo de Innovación 160

5415 Eraldaketa Digitala eta Ekintzailetza Berritzaile
Transformación Digital y Emprendimiento Innovador 161

7111 Nekazaritza, eta Landaren eta Itsasertzaren garap.
Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral 163

7112 Arrantza
Pesca 170

7113 Elikagaien Sustapena eta Kalitatea
Promoción y Calidad Alimentaria 174

7211 Ekon. Garap. Jasang Ingurumen Egitura eta Laguntza
Estructura y Apoyo de Des. Eco. Sost. M. Ambiente 177

7212 Industria Garapena
Desarrollo Industrial 181

7213 Industria Segurtasuna
Seguridad Industrial 184

7214 Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia
Innovación y Estrategia de Competitividad 186

7311 Energia eta Meatze Politika eta Garapena
Política y Desarrollo Energético y Minero 188

7613 Nazioartekotzea
Internacionalización 191

Sarreren egoera-orria
El Estado de Ingresos 192

4421 Ingurumenaren Babesa
Protección del Medio Ambiente 193

5151 Portuak
Puertos 194

5411 Nekazaritza eta Arrantza Alorreko Ikerk. eta Gara.
Investigación y Desarrollo Agropesquero 195

5413 Teknologia
Tecnología 196

7111 Nekazaritza, eta Landaren eta Itsasertzaren garap.
Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral 197

7112 Arrantza
Pesca 198

7113 Elikagaien Sustapena eta Kalitatea
Promoción y Calidad Alimentaria 199

7211 Ekon. Garap. Jasang Ingurumen Egitura eta Laguntza
Estructura y Apoyo de Des. Eco. Sost. M. Ambiente 200

7212 Industria Garapena
Desarrollo Industrial 201

7213 Industria Segurtasuna
Seguridad Industrial 202

7311 Energia eta Meatze Politika eta Garapena
Política y Desarrollo Energético y Minero 203

7613 Nazioartekotzea
Internacionalización 204

Gastuen laburpenak
Resúmenes de Gastos 205

Sarreren laburpenak
Resúmenes de Ingresos 232

EAEKO SEKTORE PUBLIKOAREN PARTZUERGOAK
CONSORCIOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE 234

Euskal Partzuergo Zientifiko-Teknologikoa
Consorcio Científico-Tecnológico Vasco 235

ENTE, SOZIETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK
ENTES, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS 259

SPRI Taldea
Grupo SPRI 260

SPRI - Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia
SPRI - Agecia Vasca de Desarrollo Empresarial 261

Teknologi Elkartegia SA
Parque Tecnológico, S.A. 301

Arabako Teknologi Elkartegia SA
Parque Tecnológico de Álava, S.A. 333

Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea SA
Parque Científico y Tecnológico de Gipuzkoa, S.A. 364

Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Gestioa SA
Gestión de Capital Riesgo del País Vasco, S.A. 395

Arabako Eraberrikuntza Industrialdea SA
Centro de Empresas e Innovación de Alava, S.A: 413

Naziorartekotze Taldea
Grupo de Internacionalización 433

Nazioartekotzeko Euskal Agentzia
Agencia Vasca de Internacionalización 434

USA Basque Trade and Investment
USA Basque Trade and Investment 455

Singapore Basque Trade and Investment
Singapore Basque Trade and Investment 472

Basque Trade e Investimento do Brasil
Basque Trade e Investimento do Brasil 489

SPRILUR Taldea
Grupo SPRILUR 505

SPRILUR SA
SPRILUR, S.A. 506

Ibaizabal Behekaldeko Industrialdea SA
Ibaizabal Behekaldeko Industrialdea, S.A. 530

Busturialdeko Industrialdea SA
Busturialdeko Industrialdea, S.A. 548

Beterri-Kostako Industrialdea SA
Beterri-Kostako Industrialdea, S.A. 565

Deba Bailarako Industrialdea SA
Deba Bailarako Industrialdea, S.A. 584

Arabako Industrialdea SA
Arabako Industrialdea, S.A. 604

Arratiako Industrialdea SA
Arratiako Industrialdea, S.A. 623

Bidasoa Oarsoko Industrialdea SA
Bidasoa Oarsoko Industrialdea, S.A. 642

Bizkaia Sortaldeko Industrialdea SA
Bizkaia Sortaldeko Industrialdea, S.A. 663

Lanbarren Parke Logistikoa SA
Lanbarren Parke Logistikoa, S.A. 682

Goierri Beheko Industrialdea SA
Goierri Beheko Industrialdea, S.A. 699

Urolako Industrialdea SA
Urolako Industrialdea, S.A. 718

Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SA
Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra, S.A. 736

Energiaren Euskal Erakunde Taldea
Grupo Ente Vasco de la Energia 755

Energiaren Euskal Erakundea
Ente Vasco de la Energia 756

CADEM SA
CADEM, S.A. 791

Euskadiko Hidrokarburoak Sozietatea SA
Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, S.A. 807

BIMEP SA
BIMEP, S.A. 828

HARANA -KONTRASTA SA
HARANA-KONTRASTA, S.A. 847

Uraren Euskal Agentzia
Agencia Vasca del Agua 862

Euskadiko Kirol Portuak
Euskadiko Kirol Portuak *888*

Neiker SA
Neiker, S.A. *912*

IHOBE SA
IHOBE, S.A. *935*

HAZI Fundazioa
Fundación HAZI *963*

ELIKA Fundazioa

05-EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA
05-DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas

EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA

DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak bere gain hartzen du enplegua sortzen duen ekonomiaren suspertzea bizkortzea, eraldaketa digitala, energetikoa eta soziosanitarioa ekoizpen-egituraren lehiakortasuna indartzeko aukera gisa hartuta, eta ingurumen-irizpideak politika sektorial guztietan integratuta, ez baldintzatzaile gisa, baizik eta balioa sortzeko lehiakortasun-faktore gisa.

Sailak lan-lerroak eta ekintzak sustatzen ditu, gobernu-programan ezarritako helburu estrategiko guztiak lortzen laguntzeko. Bereziki, hauek azpimarratzen ditu:

- Langabezia % 10aren azpitik murriztea.
- BPGaren %40 gainditzea industrian eta zerbitzu aurreratuetan.
- I+Gko konbergentzia lortzea Europako batezbestekoarekin.
- Berotegi-efektuko gasen emisioa %30 murriztea.
- Energia berriztagarrien kuota azken energia-kontsumoaren %20 izatea lortzea.

Gainera, aukera-berdintasuna eta genero-ikuspegiaren helburua zaintzearen ardura hartzen du eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak konpromiso aktiboa eta zorrotza aitortzen du.

Aurreko legegintzaldian lantzen zituen lehentasun eta erronka globalekin bat dator. Lehentasun horiek, COVID19 krisiaren ondorioz, mantendu ez ezik, areagotu eta azkartu egiten dira. Eraldaketa digital, energetiko eta klimatikoak Eusko Jaurlaritzaren agendaren parte ziren jada, eta eraldaketa horiei indar handiagoz ekiteko konpromisoa dago; aldi berean, sail honek aurrera egingo du Agenda Basque Country 2030 garatuz.

Erronka izango da lehiakortasun-ereduan beharrezkoa den jauzi kualitatiboa ematen laguntzea, lehendik dauden ekoizpen-sektoreak aprobetxatuz eta modernizatuz, digitalizazioak ematen dizkigun aukeren bidez, eta Europako Green Deal-eko printzipioak gure errealitate hurbilenean aplikatuz. Ekonomia modernoan oinarritutako hazkunde-estrategia, baliabideen erabileran eraginkorra izango dena eta lehiakorra agertuko dena. Eredu lehiakor justua, inor atzean utziko ez duena eta gure Basque Green Deal gisa hartuko duguna.

Industria.

Gobernu Kontseiluak 2021eko uztailean onartuko Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko 2024 Planak hurrengo bosturteko industria-politiken gidalerroak ezartzen ditu, bai eta hurrengo 2022rako eta hurrengo ekitaldietarako aurrekontuarenak ere.

Era berean, osasun-krisiak aukera handia ematen dio

El Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente asume como misión propia acelerar la reactivación económica generadora de empleo asumiendo la transformación digital, energética y sociosanitaria como oportunidad para fortalecer la competitividad de la estructura productiva, e integrar los criterios medioambientales en todas las políticas sectoriales, no como un condicionante, sino como un factor competitivo para crear valor.

DESMA impulsa líneas de actuación y acciones que tratan de contribuir a la consecución del conjunto de los objetivos estratégicos establecidos en el programa de gobierno, y en particular incide en los siguientes:

- Reducir el paro por debajo del 10%.
- Superar el 40% del PIB en la industria y en los servicios avanzados.
- Lograr la convergencia en I+D con la media europea.
- Reducir en un 30% la emisión de gases de efecto invernadero.
- Lograr que la cuota de energías renovables represente el 20% del consumo final de energía.

Existe, además, un objetivo de país, el de la igualdad de oportunidades y la visión de género, con el que el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente será comprometido, activo y exigente.

Un departamento acorde con las prioridades y con los retos globales en los que ya venía trabajando en la legislatura anterior, prioridades que, como consecuencia de la crisis de la Covid19, no solo se mantienen, sino que se intensifican y se aceleran. Las transformaciones digital, energética y climática ya formaban parte de la agenda del Gobierno Vasco, y existe un compromiso de abordarlas con mayor intensidad, al tiempo que este departamento seguirá avanzando con el desarrollo de una Agenda Basque Country 2030.

El reto será contribuir a dar el salto cualitativo necesario en el modelo de competitividad aprovechando y modernizando los sectores productivos ya existentes, de la mano de las oportunidades que nos brindan la digitalización, y la transformación energética y climática a través de la aplicación de los principios del Green Deal europeo en nuestra realidad más próxima. Una estrategia de crecimiento basado en una economía moderna, eficiente en el uso de los recursos, y competitiva. Un modelo competitivo justo, que no deje a nadie atrás y que asumiremos como nuestro Basque Green Deal.

Industria.

El Plan de desarrollo industrial e internacionalización 2024 aprobado por el Consejo de Gobierno en julio de 2021 marca las directrices de las políticas industriales del próximo quinquenio, así como del presupuesto para el próximos 2022 y ejercicios posteriores.

Asimismo, la crisis sanitaria brinda una gran oportunidad a

osasun-industriari, eta Basque Health Clusterrarekin lankidetzan jarraituko du lanean.

Industriaren zerbitzurako tresna guztiak ETEetan oinarrituko dira, eta enpresa traktoreak ere kontutan hartuko dira beren jarduera inguruko eta tokiko sare hornitzaileen lankidetzaren beharraz jabetuta.

Ildo horretan, DESMAk beste laguntza-plan bat egingo du euskal enpresentzat, enpresa-sarearen lehiakortasuna hobetzen laguntzeko.

Jarduera hauek izango dituzte ardatz: 4.0 industria eta zerbitzu aurreratuak; azpiegitura digitalak eta ez-digitalak; lurzoru industrialaren kudeaketa eta eskaintza; eta behar bereziak dituzten eremuak eta zailtasunak dituzten enpresei arreta eta zainketa ematea.

Hala, aurreikusitako ekintza zehatzak gauzatzeko, besteak beste, Basque Digital innovation Hub azpiegitura aprobetxatu behar da, ETEen digitalizazioa hobetzen laguntzen baitu nodoetatik abiatuta; Basque Ciber Security Center, industria-palanka gisa; eta, legegintzaldi honetan, Adimen Artifizialaren Zentroa -aurreko uztailean sortu zena-, eta Data Center, ETEen jardueraren zerbitzura jarriko dira.

2022ra begira, aurrekontu-testuinguruak aukera emango du inbertsio-jarduerak indartzeko, eta industria-lurzoruaren kudeaketa areagotzea aurreikusten da, bi helbururekin:batetik, enpresa-jardueraren aukera berriak sortzea, eta, besteteik berroneratzeko eta deskontaminatzeko jarduerei ekitea.

Sarea prest jartzeari dagokionez, banda zabal ultralasterra poligono eta estaldura zuriko guneetara zabaltzea eta 5G hedatzea aurreikusten da.

Nazioartekotzea.

Gaur egungo globalizazioak euskal enpresak nazioartekotzeko prozesuak eskatzen ditu oraindik ere, eta, horretarako, enpresak nazioartekotzeko 2024 Plana dugu eskura, Industria Garatzeko Planaren esparruan. Aurreikuspenen arabera, Covid 19k eragindako mugikortasun-mugak lasaitzen joango dira, eta euskal enpresak bere nazioarteko jarduera berreskuratuko du, ekonomia suspertzeko palanka gisa.

Euskal ekonomia irekitzearen aldeko apustu horretan, SPRI Taldearen mendeko Nazioartekotzeko Euskal Agentziak (BTI) aurrera egingo du euskal enpresari laguntza emango dioten merkataritza-bulego berriak irekitzen.

Merkataritzan eta nazioarteko jardueran ziurgabetasuna egon arren, SPRI Taldeak, BTI Nazioarteratze Agentziaren bidez, gazteak nazioarteko merkataritzan prestatzeko eta esportaziorako nahiz nazioartekotzerako laguntza-programak bultzatzeko apustuari eusten dio.

Teknologia.

Industriarekiko obsesioarekin batera, apustu teknologikoan dugun ahalegina eta konfiantza datoz. Eusko Jaurlaritzak inbertsio-apustuari eusten dio, urteko hazkundea %6koa baita. Eta 2030eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plan Berriak markatuko duen Estrategia baten arabera egiten dugu hori. Estrategia horretan, Euskadiko Espezializazio Adimendunak lehentasunezko jarduera-eremuak ditu, aukera-nitxoak definitzen ditu, eta

la industria de la salud que se seguirá trabajando en colaboración con el Basque Health Cluster.

Todos los instrumentos al servicio de la industria estarán centrados en las pymes, conscientes, también, de la necesidad de apoyar a empresas tractoras y engrasar su actividad con redes locales de proveedores.

En este sentido, DESMA volverá a lanzar un nuevo Plan de Ayudas a la empresa vasca con el objetivo de contribuir a la mejora competitiva del tejido empresarial.

Las actuaciones estarán más focalizadas en la Industria 4.0 y Servicios avanzados; las Infraestructuras digitales y no digitales, la gestión y la oferta de Suelo industrial; y la atención y cuidado tanto de Zonas desfavorecidas como de empresas en dificultades.

Así, las acciones concretas previstas, pasan por el aprovechamiento de una infraestructura como el Basque Digital innovation Hub que contribuye a partir de distintos nodos a la mejora de digitalización de las pymes; el Basque Ciber Security Center como palanca industrial, y en esta legislatura se prevén incorporar el Centro de Inteligencia Artificial -centro constituido el pasado mes de julio- y el Data Center al servicio de la actividad de las pymes.

Cara al año 2022, el contexto presupuestario permitirá reforzar actuaciones inversoras, y se prevé intensificar la gestión del suelo industrial con el doble objetivo de generar nuevas oportunidades de actividad empresarial y abordar actuaciones de regeneración y descontaminación.

Por lo que respecta a la puesta a punto de la red, se prevé culminar la extensión de la banda ancha ultrarrápida a polígonos y zonas aún de cobertura blanca, y la extensión del 5G.

Internacionalización.

La actual globalización sigue requiriendo de procesos de internacionalización de la empresa vasca para lo que ya disponemos del Plan de internacionalización empresarial 2024 en el marco del Plan de desarrollo industrial. Se prevé que las limitaciones de movilidad provocadas por la Covid 19 se vayan relajando y la empresa vasca recupere su actividad internacional como palanca de recuperación económica.

En esta apuesta por la apertura de la economía vasca, la Agencia Vasca de Internacionalización (BTI) dependiente del Grupo SPRI avanzará en la apertura de nuevas oficinas comerciales que den apoyo a la empresa vasca.

A pesar de la incertidumbre que planea en el comercio y en la actividad internacional, el Grupo SPRI, a través de la Agencia de Internacionalización BTI, mantiene la apuesta por la formación de jóvenes en comercio internacional y el apoyo de programas de ayudas tanto a la exportación como a la internacionalización.

Tecnología.

La obsesión por la industria va acompañada por el esfuerzo y la confianza que tenemos en la apuesta tecnológica. El Gobierno Vasco mantiene la apuesta inversora con crecimientos anuales del 6%. Y lo hacemos conforme a una Estrategia marcada en el Nuevo Plan de Ciencia, Tecnología e innovación 2030 en el que la Especialización Inteligente de Euskadi mantiene ámbitos prioritarios de actuación, define los nichos de oportunidad, con especial

arreta berezia jartzen du elikaduran, eta zahartze osasuntsuaren, mugikortasun elektrikoaren eta ekonomia zirkularraren arloetan ikerketa-ekimen bultzatzaileak ezartzen ditu.

foco en la Alimentación, y establece también iniciativas tractoras de investigación en los ámbitos del envejecimiento saludable, la movilidad eléctrica y la economía circular.

I+Gko estrategia anbizio handikoa da, eta I+Gko zatiari ekiteko eragile garrantzitsu bat du, hala nola Basque Research and Technology Alliance aliantza.

Es una estrategia de I+D muy ambiciosa con un agente de relevancia para de abordar la parte de I+D, como es la alianza, Basque Research and Technology Alliance.

Berrikuntza ETEetan.

Innovación en pymes.

Nolanahi ere, teknologiak zalantzarik gabe duen garrantziari dagokionez, DESMAk lehentasun osoa izango du enpresa-sarean berrikuntza ez-teknologikoa sartzeko. Berrikuntza azken muturreraino zabaldu eta enpresa txikiengana helarazteko ekimena izango da Hazinnova.

En todo caso, a la indudable relevancia de la tecnología, DESMA atenderá con total prioridad la necesidad de incorporar innovación no tecnológica en el conjunto del tejido empresarial. Hazinnova será la iniciativa con la que tratemos de extender la innovación que denominamos de última milla y hacerla llegar hasta las empresas más pequeñas.

Jarduera ekintzailea.

Actividad Emprendedora.

Jarduera ekintzailea garatzen eta lehendik dauden industria-enpresei balioa emango dieten oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzen jarraitu behar da. Horretarako, enpresa berrien sorrera %10 handitzea da asmoa, eta Euskadi tokiko industriarekin lankidetzan arituko diren nazioarteko startupen ekosistema eragile gisa kokatzeko helburua.

Ante la necesidad de seguir incidiendo en el desarrollo de la actividad emprendedora y la creación de nuevas empresas de base tecnológica que aporten valor a las empresas industriales existentes, DESMA establece el objetivo de incrementar un 10% la creación de empresas tecnológicas y posicionar a Euskadi como ecosistema tractor de startups internacionales que colaboren con la industria local.

2021eko apiriletik indarrean dagoen Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde arteko 2021-2024 Plan berriak ekintzailetzaren espiritua eta kultura sustatzeko eta finantza-eta ibertsio-laguntzako tresnak hobetzeko jarduera-ildoak ezartzen ditu.

El nuevo Plan interinstitucional de Apoyo a la Actividad Emprendedora 2021-2024, en vigor desde abril de 2021, marca las líneas de actuación encaminadas a fomentar el espíritu y la cultura emprendedora y mejorar los instrumentos de apoyo financiero e inversor.

Elikadura eta lurraldearen oreka.

Alimentación y equilibrio territorial.

Beharrezkoa, aukera eta erronka bihurtzen da elikadura. Horregatik, elikaduraren inguruko estrategia landuko da, ekoizpena, eraldaketa eta elikagaia industria ikuspegietatik. Lan arlo horietan oso kontutan izanik I+G, ekintzailetza, balio-kate osoari egiten zaion ekarpena, kontsumoa, Horeca kanala, sukaldaritza edo gastronomiak bera.

La Alimentación se convierte en un ámbito de necesidad, de oportunidad y reto. Por ello se abordará una estrategia en torno a la alimentación, desde el punto de vista de su producción, transformación, industria alimentaria, generación de nuevos productos como consecuencia de I+D, emprendimiento, su aportación al conjunto de la cadena de valor desde lo que supone la extracción hasta el consumo, pasando por el canal horeca, la restauración o la gastronomía.

Helburuen artean, azpimarratzekoak dira lehen sektorea eta tokiko elikadura-katea bultzatuz, Euskadiko elikagai-ekoizpena handitzea, eta lurraldeen arteko oreka handiagoa bermatzea, landa- eta itsasertzeko guneetan bizi diren eta bertan lan egiten duten pertsonei bizi-kalitate hobea emanez.

Hemos establecido como objetivos aumentar la producción de alimentos en Euskadi, impulsando el sector primario, así como la cadena local de alimentación, y garantizar un mayor equilibrio territorial dotando de mayor calidad de vida a las personas que residen y trabajan en los núcleos rurales y litorales.

Horretarako, fase garrantzitsu batean sartu gara, testuinguru arauemaile berri batekin. Hauek, tartean: Landa Garapeneko Lege Berria onartzea, Gobernu Kontseiluak onartuta duena eta Legebiltzarrera bidalita duena; Euskadiko NPBrako Plan Estrategiko berria eta Euskadiko Itsas Arrantzarako Europako Funtsaren 2021-2027 Programa Eragilea kudeatzea.

Para ello, entramos en una fase relevante con un nuevo contexto normativo que nos corresponde marcar. Se trata de la aprobación de una Nueva Ley de Desarrollo Rural, cuyo proyecto de ley ha sido ya aprobado por el Consejo de Gobierno y remitido al Parlamento vasco; la gestión del nuevo Plan Estratégico de Euskadi para la PAC y del Programa Operativo del Fondo Europeo Marítimo de Pesca de Euskadi 2021-2027.

Lehentasuna emango zaio, besteak beste, nekazaritza ekologikoari, mahastizaintza eta ardogintzako familia-upategiari eta itsas akuikulturari.

Se priorizarán, entre otras cosas, la agricultura ecológica; la bodega familiar de la actividad vitivinícola, e impulsar la acuicultura marina.

Hori guztia sektore erakargarri bat modernizatuz eta belaunaldien arteko erreleboa bermatuz, jakinik landa-inguruneko eta itsasertzeko jarduera ekonomikoa dibertsifikatuz joan daitekeela, adibidez, basoko

Todo ello modernizando un sector que sea atractivo y garantice el relevo generacional, sabiendo que la actividad económica del entorno rural y litoral puede ir diversificando hacia proyectos, por ejemplo, de bioeconomía forestal.

bioekonomiako proiektuetara.

Energia.

Orain arte aipatutako guztia energia-testuinguru berri batean garatuko da, eta hori, eraldatzeko ezinbestekoa izango da energia-eraginkortasunari eta berriztagarriak sortzeari laguntzen dioten sektore-politika guztiak lehenestea.

Energia eta kontsumo-iturriei dagokienez, energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoaren %20koa izatea lortu nahi da. Energia berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala izapidetzen hasita, sortzeko aukera posible guztiekin aurrera egiteaz gain, energia eolikoaren sorrera berriarekin hastea izango da legegintzaldi honetako erronka.

Era berean, eraginkortasun energetikoa zainduko dugu Euskadiko Energia Iraunkortasunari buruzko Legearen testuinguruan, udalerriekin lankidetzan arituz eta tokiko jarduerak finantzatzeko jasangarritasun energetikoko proiektuetarako programa abian jartzea.

Klima-aldaketa.

Sail gisa dugun misioaren filosofia ingurumen-irizpidea eta ekonomia sortzearena bateratzea da.

Berotegi-efektuko gasen isurketa % 30 murriztea helburu hartuta, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du helburua gorantz berrikusteko eta Europan ezarritako irizpideekin bat egiteko.

Atal honetako ekintzarik aipagarrinietako bat izango da garapen ekonomiko jasangarriko estrategia bat hedatzea, erreferentziatzat hartuta, besteak beste, 2021ean onartutako Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plana.

Hondakinen kudeaketa.

Neurririk eraginkorrena hondakinik ez sortzea litzateke, baina errealismoak "hondakin gutxiago sortzea eta horien berrerabilpena eta balorizazioa hobetzea" du helburu.

2022an, Gobernu Kontseiluak Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Lege-proiektua onartuko du, eta bertan hondakinei buruzko araudia ere kontuan hartuko dugu. Halaber, 2022an Ingurumen Administrazioaren Legea onartzea eta 2030erako Hondakinak Kudeatzeko Plan berria indarrean jartzea aurreikusten da.

Azpimarratzekoa da legealdiko konpromisoa industria-hondakinak kudeatzeko eta balorizatzeko zentro bat abian jartzeko.

Natura-ingurunearen kudeaketa.

Ezin da Sailaren misioa bete ingurumena errespetatzen duen kudeaketarik egin gabe. Horregatik, gure helburua da ingurumen-estrategia zeharkako politika gisa onartzea eta ezartzea.

Era berean, uraren, lurzoruaren eta airearen ingurumen-adierazleak hobetzea, biodibertsitatearen defentsa eta errespetu handiagoa lortzeko.

Lehen aipatutako Ingurumen Administrazioari buruzko Lege Berriari, 2022an Natura Ondareari buruzko Lege Berria onartzeko Gobernu Kontseiluak 2020.urtearen amaieran igorritako aurreikuspena gehitzen diogu.

Energía.

Todo lo mencionado hasta ahora se desarrollará en un nuevo contexto energético, cuya transformación va a exigir priorizar todas las políticas sectoriales que contribuyan a la eficiencia energética y la generación de renovables.

En cuanto a fuentes de energía y consumo, el objetivo marcado es conseguir que la cuota de las renovables sea del 20% del consumo final de energía. Iniciada la tramitación del Plan Territorial Sectorial de energías renovables, además de avanzar con todas las opciones posibles de generación, el reto de esta legislatura será comenzar con nueva generación de energía eólica.

Asimismo, cuidaremos la eficiencia energética en el contexto de la Ley de Sostenibilidad Energética de Euskadi, con el foco puesto en la colaboración con los municipios y la puesta en marcha del Programa para proyectos de sostenibilidad energética para la financiación de actuaciones locales.

Cambio Climático.

La filosofía de nuestra misión como departamento es hacer confluir el criterio ambiental y el de la generación de economía.

Habiendo establecido como objetivo la reducción en un 30% la emisión de gases de efecto invernadero, el Gobierno Vasco se compromete a revisarlo al alza y converger con los criterios establecidos en Europa.

Una de las acciones más destacables en este apartado será el despliegue de una estrategia de desarrollo económico sostenible tomando como referencia, entre otras, el Plan de Economía Circular y Bioeconomía aprobado en 2021.

Gestión de Residuos.

La medida más eficaz sería no generar residuos, pero el realismo nos lleva al objetivo de "generar menos residuos y mejorar su reutilización y valorización".

En 2022 el Consejo de Gobierno aprobará el proyecto de Ley de Transición Energética y Cambio Climático, en la que también tendremos en cuenta la normativa de residuos. Asimismo, se prevé la aprobación en 2022 de la Ley de Administración Ambiental y la entrada en vigor del nuevo Plan de Gestión de Residuos 2030.

Cabe destacar el compromiso de legislatura para la puesta en marcha de un centro de gestión y valorización de residuos industriales.

Gestión del medio natural.

No cabe misión del Departamento, sin una gestión respetuosa con el medio ambiente. De ahí que nuestro objetivo sea asumir e implementar la estrategia ambiental como política transversal.

Así como mejorar los indicadores ambientales de agua, suelo y aire, en una mayor defensa y respeto de la biodiversidad.

A la Nueva Ley de Administración Ambiental antes mencionada, sumamos la previsión para la aprobación en 2022 de la Nueva Ley de Patrimonio Natural, remitida a finales del 2020 por el propio Consejo de Gobierno.

Gainera, Plan Hidrologikoa eta Uholdeak Kudeatzeko 2021-2027 Plana (UAKP) egin eta onartu behar ditugu. Horri esker, plangintza bat egin ahal izango dugu uholdeen aurrean babesteko oinarrizko azpiegiturak egiteko eta 2030erako saneamendu-sistemaren % 100 osatzeko.

Basque Green Deal

2021eko maiatzean, Euskadik bat egin du Europako Itun Berdearekin (Green Deal), ibilbide-orri propio batekin, eta bertan lerrokatu dira DESMAren jarduera guztiak, lau lan-eremu zabaletan: energia eta baliabide naturalak; ekonomia eta industria jasangarria, ekonomia zirkularra eta bioekonomia erreferentzia berritzailetzat hartuta; mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua, teknologiaren eta digitalizazioaren aldeko apustu bizia eginez; eta elikagaien kalitatearen eta kalitatearen aldeko apustu txikia eginez.

Basque Green Deal / Pacto Verde /Itun Berdea programak kudeaketa-ekintza sektorialak ekarriko ditu, bai eta erakundeak, eragileak eta herritarrak gizarteratzeko eta sentsibilizatzeko ekimenak ere.

Nos corresponde, además, elaborar y aprobar el Plan Hidrológico y el Plan de Gestión de Inundaciones (PGRI) 2021-2027, lo que posibilitará una planificación para acometer infraestructuras básicas de defensa frente a inundaciones y Completar para 2030 el 100% del sistema de saneamiento.

Basque Green Deal

En mayo de 2021 Euskadi se ha adherido al Pacto Verde Europeo (Green Deal) con una hoja de ruta propia en la que se alinean todas las actuaciones de DESMA en cuatro amplios ámbitos de trabajo: la energía y los recursos naturales; la economía e industria sostenible con la economía circular y la bioeconomía como referencia innovadora; la apuesta por la movilidad sostenible con una intensa apuesta por la tecnología y la digitalización; y una mejora de la alimentación, con la apuesta por los productos KM0 y de calidad y un menor despilfarro de los alimentos en Euskadi.

El Basque Green Deal/Pacto Verde/Itun Berdea conllevará acciones sectoriales de gestión, así como iniciativas de socialización y sensibilización a instituciones, agentes y a la ciudadanía.

PROGRAMA

4421 INGURUMENAREN BABESA

ARDURADUNA

05 EKONOMIAREN GARAPEN , JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

INGURUMEN KALITATEAREN ZUZENDARIA, NATURA ONDARE ETA KLIMA ALDAKETA ZUZENDARIA

PROGRAMA

4421 PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE

RESPONSABLE

05 DESARROLLO ECONÓMICO , SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

DIRECTOR DE CALIDAD AMBIENTAL, DIRECTOR DE PATRIMONIO NATURAL Y CAMBIO CLIMÁTICO

MEMORIA

Ingurumen kontzeptua kontzeptu irekia eta diziplina anitzekoa da, eta ondorioak eragin ditzake bizitza sozialeko, ekonomiko eta kulturaleko, publikoko eta pribatuko alderdi eta sektore guztietan.

Konstituzioan aitortuta daude pertsonak garatzeko behar duen ingurumen egokiaz gozatzeko eskubidea eta ingurumena babesteko betekizuna, eta eragin berezia dauka botere publikoei emandako aginduak; «ezinbesteko elkartasun kolektiboaren laguntzaz, bizi-kalitatea babestea eta hobetzea, eta ingurumena defendatzea eta lehengoratzea».

Ingurumenaren definizioak berezko ezaugarritzat dauka ingurumenaren bilakaera, eta Eusko Jaurlaritzak aintzat hartzen du jarduteko lehentasunak ezartzeko orduan. Adibidez, "ekonomia zirkularra" adiera EAEko ingurumen-politikaren zati da dagoeneko, eta berori garatzeko hainbat jarduera identifikatu dira.

Hori kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak ingurumen kontzeptua politika publiko guztietan txertatu nahi du, eta kontzeptuak politika horiek alderik alde zeharka ditzala. Halaber, bultzatzen ari da modu efektiboan EAEko administrazio publiko guztiek hala egin dezaten, pertsonen ongizatea indartzeko, enplegua sortzeko eta etorkizuneko ekonomia garatzeko oinarria izan dadin.

Ingurumena pertsonak garatzeko benetako aukera-iturria da, baita enpresentzako eta ekintzaileentzako aberastasuna sortzeko eta gizarte bidezkoagoa eta zuzenagoa sortzeko aukera berrien iturria ere.

Azken datuek islatzen dutenez, EAEko gizarteak, oro har, uste du ingurumenak hobera egin duela azken urteetan, eta gero eta konpromiso handiagoa du ingurumenari dagokionez.

Horrek ez du esan nahi jarduketarik egin behar ez denik EAEko ingurumen-kalitatea hobetzen jarraitzeko horren inguruan herritarrek eskatutakoaren arabera. Orain inoiz

El concepto de medio ambiente es un concepto abierto y multidisciplinar, susceptible de generar efectos en todos los aspectos y sectores de la vida social económica y cultural, pública y privada.

El derecho a disfrutar del medio ambiente adecuado para el desarrollo de la persona, así como el deber de conservarlo está reconocido constitucionalmente y especial incidencia tiene el mandato que se lanza a los poderes públicos de “proteger y mejorar la calidad de la vida y defender y restaurar el medio ambiente, apoyándose en la indispensable solidaridad colectiva”.

Una característica intrínseca a la definición de medio ambiente es la evolución del mismo, hecho que es observado por el Gobierno Vasco a la hora de establecer las prioridades de actuación. Por ejemplo, acepciones como “economía circular” que ya forma parte de la política ambiental vasca y sobre la que ya se han identificado las distintas actuaciones a realizar para su desarrollo.

Habida cuenta de lo expuesto, desde el Gobierno Vasco se promueve la integración trasversal del concepto de medio ambiente en todas las políticas públicas y se fomenta que, de forma efectiva, se introduzca en todas las administraciones vascas, de forma que el mismo sea la base para impulsar el bienestar de las personas, la creación de empleo y el desarrollo de una economía de futuro.

El medio ambiente es una fuente real de oportunidades de desarrollo para las personas, de creación de riqueza para las empresas, emprendedores y emprendedoras y de nuevas posibilidades para construir una sociedad más justa y equitativa.

Como reflejan los últimos datos, la sociedad vasca en general tiene una percepción extendida que la situación del medio ambiente ha mejorado en los últimos años y su grado de compromiso con el medio ambiente es cada vez mayor.

Esto no significa que no resten actuaciones por acometer para seguir mejorando la calidad de la CAPV según lo demandado por la ciudadanía en este sentido, sino que

baino gehiago ahalegin guztiak egin behar dira, Europan zein nazioartean hartutako ingurumen-konpromisoak eta EAEko gizarteari eragiten dizkiotenak betetzeko.

Horretarako guztirako, koordinaturik esku hartu behar dute administrazio guztiek, eta, horrez gain, eragile sozialek, ekonomikoek, zientifiko-teknologikoek eta, batez ere, herritarrek ere hartu behar dute parte.

Transbertsaltasun hori esku-hartze publikoko beste alor batzuekin duen loturaren bidez ere agertzen da, eta, bereziki, politika energetikoekin, garraio-politikekin mugikortasun-politikekin, etxebizitza-politikekin eta osasun publikoko politikekin duen loturaren bidez. Ondorioz, ezinbestekoa da arlo horiek egin beharreko ahaleginak osagarriak direla ziurtatzea.

Nolanahi ere, adierazi behar da EAEk ingurumenaren arloan duen eskumena ingurumen-araudia lege bidez garatzea eta betearaztea dela, eta arlo horretan araugintza-ahalmena duten estamentuetatik araugintza-onarpen etengabea eta ikaragarria egin dela azken urteotan, eta, horren ondorioz, Ingurumen eta Jasangarritasuneko Sailburuordetzak garatutako jardueraren zati handi bat araudi horretatik eratorritako administrazio-prozedurak kudeatzean datzala.

Indarrean dauden plangintza-dokumentuen artean hauek nabarmendu behar dira: klima Aldaketaren Estrategia, Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana, Biodibertsitatearen Estrategia, Geodibertsitate Estrategia, Jasangarritasunerako Hezkuntzaren Estrategia, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana eta Ekonomia Zirkularraren Estrategia. Dokumentu horietako asko behar bezala balioesten ari dira helburuak lortzeari dagokionez, eta berrikusi egiten dira, legegintzako eskakizun berrietara eta herritar eta sektore ekonomiko guztien eskaeretara egokitzeko

Eraginkorra izateko, ingurumen-politikak epe luzerako lorpenak lortzea izan behar du ardatz. 2020rako EAEko Ingurumen Esparru Programa, ingurumen-plangintzako erreferentzia-tresna, 2030erako beste programa batek ordeztuko du.

Europako Itun Berdea EB ekonomia jasangarri batez hornitzeko ibilbide-orria da. 2030 Agenda eta Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren Helburuak aplikatzeko Batzordearen estrategiaren alderdi bat da. Hala ere, COVID-19aren osasun-krisiak eztabaida bat ireki du: Itun Berdea luxu eskuraezina da, ala etorkizunerako ekonomia egokiago bat berreraikitzeko aukera bat? Euskadirentzat, egindako azterketan oinarrituta, ez dago zalantzarik: Itun Berdea aukera bikaina da, baina, aldi berean, premia nabaria ere bai.

2020-2024 Gobernu programa "Euskadi martxan" XII. Legegintzaldikoa, Osasuna bermatzea, ekonomia eta enplegua suspertzea eta Inor atzean ez uztea printzipioetan oinarriturik, lau jarduera-ardatzetan egituratzen da, Nazio Batuen garapen jasangarriaren helburuekin eta gure errealitate ekonomiko eta sozial instituzionalarekin bat etorriz.

Hori guztia, Euskadirako, Basque Green Deal delakoan zehazten da. Bertan, emisioak murrizteko eta energia

más que nunca hay que redoblar los esfuerzos para cumplir con los compromisos medioambientales adoptados a nivel europeo e internacional que compelen a la sociedad vasca.

Todo ello requiere no solamente la intervención coordinada de todas las administraciones, sino también la participación de los agentes sociales, económicos, científico tecnológicos y, sobre todo, de la ciudadanía.

Una transversalidad que se revela también en su vinculación con otros ámbitos de intervención pública y muy especialmente con las políticas energéticas, de transporte, movilidad sostenible, vivienda y de salud pública, haciendo imprescindible asegurar la complementariedad de los esfuerzos a emprender desde estas áreas.

En todo caso, debe señalarse que la competencia que en materia medioambiental ostenta la CAPV consiste en el desarrollo legislativo y ejecución de la normativa ambiental, y que en este ámbito se ha producido en los últimos años desde los distintos estamentos con potestad normativa una incesante e ingente aprobación normativa, que ha conllevado que una parte importante de la actuación desarrollada por la Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental consista en la gestión de procedimientos administrativos derivados de aquella.

Entre los documentos planificadores en vigor cabe destacar: la Estrategia de Cambio Climático, el Plan de Prevención y Gestión de Residuos, la Estrategia de Biodiversidad, la Estrategia de Geodiversidad, la Estrategia de Educación para la Sostenibilidad, el Plan Rector de Uso y Gestión de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y la Estrategia de Economía Circular. Documentos muchos de ellos que están siendo convenientemente valorados respecto a la consecución de objetivos y revisados para su adaptación a las nuevas exigencias legislativas y demandas del conjunto de la ciudadanía y sectores económicos.

Para ser efectiva la política ambiental debe centrarse en la consecución de logros a largo plazo. El Programa Marco Ambiental de la CAPV 2020, instrumento de referencia en planificación ambiental, será sustituido por un nuevo programa con horizonte 2030.

El Pacto Verde Europeo es la hoja de ruta para dotar a la UE de una economía sostenible. Es parte integrante de la estrategia de la Comisión para aplicar la Agenda 2030 y los Objetivos de Desarrollo Sostenible de las Naciones Unidas. Sin embargo, la crisis sanitaria Covid-19 ha abierto un debate sobre si el Pacto Verde es un lujo inasequible o una oportunidad para reconstruir una economía más adecuada para el futuro. Para Euskadi, en base al análisis realizado, no cabe duda que el Pacto Verde representa una gran oportunidad pero a la vez una indudable necesidad.

El programa de Gobierno 2020-2024 "Euskadi en Marcha" de la XII legislatura, apoyado en los tres principios, Garantizar la salud, Reactivar la economía y el empleo y No dejar a nadie atrás, estructura sus compromisos programáticos de Gobierno en cuatro ejes de actuación alineados con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas y en nuestra propia realidad económica, social e institucional.

Todo ello se concreta para Euskadi en el Basque Green Deal que recoge los objetivos de reducción de emisiones y

berriztagarria sortzeko helburuak jasotzen dira, eta eredu ekonomiko gisa sortzen da, industria eta teknologia palanka nagusi direla; beraz, zientzia, teknologia, ekonomia zirkularra, industria, trantsizio energetikoa edo elikaduraren katea bera helburu berarekin lerrokatzen dira: bidezko garapen jasangarria

"Planeta" izeneko ardatzaren barruan, bidezko energia-trantsizioa, aurrekontu honetako programek betetzen dituzten hiru jarduera-eremuak gehitu dira.

Hauek dira jarduera-eremuak:

1. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

EBk nazioarte mailan eta EBn anbizioarekin jarduteko konpromisoa hartu du, 2016ko urriaren 5ean klima aldaketari buruzko Parisko Akordioa berretsi ostean. Europar Batasunaren helburua 2030erako berotegi-efektuko gasen isuriak gutxienez % 55 murriztea da, 1990eko datuekin alderatuta, eta horretarako "fit for 55" izeneko legegintza-neurri sorta bat aktibatu du. Epe luzerako helburu gisa, EBk 2050erako beranduenez neutraltasun klimatikoa lortzeko konpromisoa hartu du. Bestalde, funtsezkoa da klima-aldaketaren ondorio kaltegarrietara egokitzea, bai eta etorkizuneko eraginen aurrean erresilientzia prestatzea eta hobetzea ere. Bi helburu horiek "Europako klimaren Legea" izeneko erregelamenduan txertatu ditu.

Euskadi konprometituta dago nazioartean adostutako garapen iraunkorrarekin eta klima-helburuekin. Eusko Jaurlaritzaren Klima Larrialdietako Adierazpenak indartu egin du konpromiso hori, eta Euskadi erreferentziazko erkidegoa da klimaren arloan. "Basque Green Deal" da Parisko Akordioa eta Europako Itun Berdea gure lurraldean lerrokatzen dituen esparrua, eta batez besteko tenperatura globala 2 gradu zentigradutik gorakoa izan ez dadin eta 2050ean berotegi-efektuko gasen isurketan herrialde neutroa izan gaitezen lagunduko du.

Eusko Jaurlaritzak 2015ean Euskadiko klima-aldaketaren estrategia onartu zuen, "Klima 2050", eta 2016an 2030 Energia Estrategia, isuriak murrizteko eta trantsizio energetikoari buruzko nazioarteko politikak arautzen dituen erantzukizun partekatuaren printzipioa onartuz. Epe laburreko bi tresna horien integrazioa 2021/2024 Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Planean zehaztu da. Hauek dira planaren helburuak:

- Berotegi-efektuko gasen isurketa % 30 murriztea, 2005. urtearekin alderatuta.
- Energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoaren % 20 izan dadin lortzea.
- Euskal lurraldeak klima-aldaketaren aurrean duen erresilientzia bermatzea.

Horrez gain, TEren eta CC2024 planaren hedapenak, zeharka bada ere, langabezia % 10etik behera murrizten lagunduko du, eta I+Gn Europako batez bestekoarekin konbergentzia lortzen.

Gaur egun, Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen aurreproiektua garatzen ari da, eta 2022an onartzea aurreikusten da. Arau horri esker, Euskadi egungo arau-testuingurura egokitzen den

de generación de energía renovable, y nace como modelo económico con la industria y la tecnología como principales palancas, por lo que ciencia, tecnología, economía circular, industria, transición energética o la propia cadena de la alimentación se alinean con un mismo objetivo: el desarrollo justo y sostenible.

Incluidos dentro del eje denominado "Planeta" Transición energética justa, se incorporan las tres áreas de actuación que recogen los compromisos programáticos a los que responden los programas incluidos en este presupuesto.

Las áreas de actuación son:

1.- ACCIÓN POR EL CLIMA

La UE se ha comprometido a actuar con ambición a nivel internacional y en relación con el clima, tras haber ratificado el Acuerdo de París sobre el cambio climático el 5 de octubre de 2016. Los objetivos de la UE son reducir las emisiones de gases de efecto invernadero (GEI) en al menos un 55 % para 2030, en comparación con 1990, para lo cual ha activado todo un paquete de medidas legislativas denominado “Fit for 55”. Como objetivo a largo plazo, la UE se ha comprometido en alcanzar la neutralidad climática lo más tardar para 2050. Por otro lado, la adaptación a los efectos adversos del cambio climático resulta fundamental, así como la preparación y la mejora de resiliencia ante impactos futuro. Ambos objetivos los ha integrado en el reglamento conocido como “Ley del clima Europea”.

Euskadi está comprometida con el desarrollo sostenible y los objetivos climáticos acordados internacionalmente. La Declaración de Emergencia Climática del Gobierno Vasco ha reforzado este compromiso y sitúa a Euskadi como una Comunidad de referencia en materia climática. El “Basque Green Deal” es el marco que alinea el Acuerdo de Paris con el Pacto Verde Europeo en nuestro territorio y va a contribuir a evitar que la temperatura media global supere los 2 grados centígrados y seamos un país neutro en la emisión de gases de efecto invernadero en el 2050.

El Gobierno Vasco aprobó el año 2015 la Estrategia de cambio climático de Euskadi, “Klima 2050” y en 2016 la Estrategia Energética 2030, asumiendo el principio de responsabilidad compartida que rige las políticas internacionales de reducción de emisiones y sobre la transición energética. La integración de estos dos instrumentos a corto plazo se ha concretado en el Plan de Transición Energética y Cambio Climático 2021/2024, cuyos objetivos son:

- Reducir en un 30% la emisión de gases de efecto invernadero respecto a 2005.
- Lograr que la cuota de energías renovables represente el 20% del consumo final de energía.
- Asegurar la resiliencia del territorio vasco al cambio climático.

Adicionalmente, el despliegue del Plan de TE y CC 2024 contribuirá de forma colateral a reducir el paro por debajo del 10% y lograr la convergencia en I+D con la media europea.

Actualmente, se está desarrollando el anteproyecto de Ley de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi, prevista su aprobación en 2022. Esta norma permitirá posicionar a Euskadi entre las primeras regiones en estar

lehen eskualdeen artean kokatu ahal izango da, eta klima-aldaketarekiko erresilientea eta neutroa den lurraldea izatea ahalbidetuko dio, bidezko trantsizioa eginez

Hazkunde ekonomikoa eta berotegi-efektuko gasen isurketen murrizketa bateratzeko bateragarritasuna egitate bat da Euskadin, 2005. urteaz geroztik, gure ekonomia % 20 hazi baita; aldiz, BEG isuriak % 27 murriztu dira, eta, beraz, karbonoan neutroa den ekonomia baterantz aurrera egiteko apustu irmoa ikusten da.

Horretarako, honako ekintza hauek egingo dira:

1.1.- NEUTRA karbono-ekonomia baterantz aurrera egitea, enplegua sortzeko eta garapen industrial eta teknologikorako aukera gisa

1. Zeharkako berrikuntza eta garapen teknologikoa klimaren aldeko ekintzan. Klima-aldaketaren aldagaia sartzea ZTBP Euskadi 2030en barruko berrikuntza-proiektuetan.

2. Teknologia garbien euskal zerrenda fiskalitate berdeko tresna gisa aktibo mantentzea.

3. Egokitzapen-neurri eraginkorrak bultzatzea, gizarte, ekonomia- eta ingurumen-sistemen esposizioa eta urrakortasuna murrizteko klimaren aldaketaren aurrean, eta haien erresilientzia hobetzeko, adibidez, naturan oinarritutako konponbideak.

4. Lurzoruan zein biomasan karbonoa (berdea eta urdina) xurgatzeko lurraldearen potentziala handitzen duten jarduketak sustatzea, karbono-hustutegi berriak sortuz edo karbonoa xurgatzeko kudeaketa-teknikak aplikatuz.

5. Atmosferara isurtzen diren jarduerak berrikustea, eskuragarri dauden teknika onenetara eta arintze-teknologietara egokitzeko. Isurketa lausoetan eragin.

6. Eremu kalteberetarako inpaktuak egokitzeko eta murrizteko plan espezifikoak monitorizatzea eta prestatzea (uholdeen, luizien, olatuen eta itsas mailaren igoeraren eta denboraleen aurrean).

7. Klima-aldaketaren aurreko egokitzapenaren eta erresilientziaren arloko ezagutza aurreratuaren transferentzia eta froga-proiektuen aurkezpena dinamizatzen jarraitzea, Klimatek ekimenaren bidez.

1.2.- Klima-gobernantzako eredu berri bat sustatzea.

1. "Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren Legea" onartzea, besteak beste, berotegi-efektuko gasen emisioan neutraltasuna (karbono-neutraltasuna) lortzeko 2050erako, eta klima-aldaketaren arloan erakundeen arteko koordinazio-mekanismoak eta -organoak ezartzea. Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legea izapidetzea eta onartzea.

2. Udalerri-eremuan Klima eta Energia Planak egitea eta hedatzea Udalsarea 2030 sarearen esparruan.

adaptada al contexto normativo actual y que le permita ser un territorio climáticamente neutro y resiliente al cambio climático realizando una transición justa

La compatibilidad de conciliar el crecimiento económico con la reducción de emisiones de GEIs, es un hecho en Euskadi desde el año 2005 ha crecido nuestra economía en un 20% mientras que las emisiones de GEIs se ha reducido en un 27%, con lo que se observa la apuesta decidida por avanzar hacia una economía neutra en carbono.

Mediante la realización de las siguientes acciones:

1.1.- Avanzar decididamente hacia una economía NEUTRA en carbono como oportunidad para la creación de empleo y el desarrollo industrial y tecnológico.

Instalazio erradioaktiboei buruzko jardun-eremuaren barruan, horrelako instalazioei aplikatu beharreko berariazko araudia betetzen dela kontrolatzeko asmoz, zaintza- eta kontrol-lanak egingo dira 2. kategoriako instalazio erradioaktiboen % 100 eta 3. kategoriako instalazio erradioaktiboen % 33 ikuskatuz, bai eta erradiodiagnostiko medikoko instalazioetarako lagin adierazgarri bat atereaz ere.

Era berean, material nuklearren zein erradioaktiboen garraio-arloko kontrola egingo da; horretarako, EAEn mota horretako salgaien ohiko garraio-moten artean banatutako ekintza-plan bat prestatuko da.

Instalazio erradioaktiboen eskaerak ebaluatzeko jarduerekin jarraituko da, bai funtzionamendu-baimen berrienak, bai baimen horien aldaketa eta itxierenak, nahitaezkoa baita eskaera horiek Administrazioari aurkeztea dagokion baimena lortu nahi bada.

1., 2. edo 3. kategoriako iturriak dituzten instalazioetan iturri erradioaktiboen babes fisikoari dagokionez, egoera hori

INSTALACIONES RADIACTIVAS

Dentro del área de actuación relativa a las instalaciones radiactivas, con objeto de controlar el cumplimiento de la reglamentación específica aplicable a este tipo de instalaciones, se efectuarán tareas de vigilancia y control a través de la inspección del 100% de las instalaciones radiactivas de 2ª categoría y del 33% en instalaciones radiactivas de 3ª categoría, así como una muestra representativa para las instalaciones de radiodiagnóstico médico.

Asimismo, se realizará un control en el área de transporte, tanto de los materiales nucleares como radiactivos, mediante un plan de acción distribuido entre los diferentes tipos de transporte habituales de este tipo de mercancías en la CAPV.

Se continuará con las actividades de evaluación de las solicitudes de las instalaciones radiactivas, tanto de las nuevas autorizaciones de funcionamiento como de las modificaciones y clausuras de las mismas, al ser obligatorio su presentación ante la Administración, con objeto de obtener la correspondiente autorización.

En relación a la protección física de las fuentes radiactivas en aquellas instalaciones con fuentes de categorías 1, 2 o

ikuskapen-jardueren eta ondorengo ebaluazioaren bidez egiaztatuko da, eta, hala badagokio, tartean dauden beste erakunde batzuei helaraziko zaie informazioa.

Jarraipen bat ere egingo dugu instalazio erradioaktiboak dauzkaten eta ekonomikoki larri dabiltzan enpresak begi aurretik ez galtzeko, ez dezagun material eta ekipo erradioaktiboen kontrola galdu eta, itxi beharrean gertatzen badira eta eraitsi egin behar badira, txukun egiten laguntzearren.

Instalazio erradioaktiboetan diharduten langileen prestakuntzari eta egiaztapenari dagokienez, hala nola bete beharreko eginkizunetarako gaitasuna lortzeko beharrezko prestakuntzari dagokionez, honako hauek egingo dira:

1. 2. eta 3. mailako instalazio erradioaktiboen ikuskatzaile edo operadore lizentziei dagokien eskabideak izapidetzea.

2. Lehen aipatutako lizentziak lortzeko aurkezten diren prestakuntza-ikastaroak eta -programak homologatzea.

3. EAEn emandako prestakuntza-ikastaroen ikuskatzea eta kontrolatzea, proba egokiak egitea barne, langileak ikastaroak aprobetxatzen ari diren ebaluatzeko.

Ingurumenaren zaintze erradiologikoa egingo da, EAEko hiru lurralde historikoetako hiriburuetan detekzioa egiteko dauden hiru estazio automatikoek emandako parametroak aztertuz, ingurumenean zer erradiazio-maila dagoen jakiteko edo edozein aldaketa erradiologiko detektatzeko.

Jarduera hori Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluaren, EAEren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean 2021ean sinatutako hitzarmen berri bat antolatuko da, eta Bilboko Ingeniaritza Eskolako Energia Ingeniaritza Sailaren laguntza teknologikoa izango du.

Halaber, ingurumen-zaintza erradiologikoaren barruan, larrialdi erradiologikoen aurreko alerta-sare berria instalatzen jarraituko da EAEn eta hamaika detekzio-estazio izango ditu.

Arrisku erradiologikorako Babes Zibilaren Oinarrizko Plangintza Jarraibidearen barruan, Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarekin lankidetzan jarraituko da, arrisku erradiologikoetan egokiak diren larrialdi-plan bereziak prestatu eta garatzeko.

Lehen aipatutako zereginak Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean indarrean dagoen mandatu-hitzarmenak ezarritako legezko esparruaren barruan beteko dira.

3, se comprobará mediante actividades de inspección y su posterior evaluación dicha situación, trasmitiéndose la información en su caso a otros Organismos implicados.

Se hará un seguimiento de aquellas empresas con instalación radiactiva que se encuentren en situación económica delicada, con objeto de evitar una pérdida de control sobre el material y los equipos radiactivos, procurando un desmantelamiento ordenado de la misma para las situaciones de clausura.

Respecto de la formación y acreditación del personal de operación en instalaciones radiactivas, así como de la formación necesaria para alcanzar la competencia en las funciones a desempeñar, se realizarán las siguientes actividades:

1. Tramitación de solicitudes de licencias de supervisor u operador de instalaciones radiactivas de 2ª y 3ª categoría.

2. Homologación de cursos y programas de formación presentados para la obtención de las licencias citadas anteriormente.

3. Inspección y control de los cursos de formación impartidos en la CAPV, incluyendo la realización de pruebas con objeto de evaluar el aprovechamiento de los cursos por parte del personal asistente.

Se efectuarán tareas de vigilancia radiológica ambiental mediante el análisis de los distintos parámetros aportados por las tres estaciones automáticas de detección, instaladas en cada una de las capitales de los tres Territorios Históricos de la CAPV, con objeto de conocer el nivel de radiación existente en el medio ambiente y detectar cualquier alteración radiológica en el mismo.

Dicha actividad se articulará mediante convenio suscrito el pasado año 2021 entre el Consejo de Seguridad Nuclear (CSN), la CAPV y la Universidad del País Vasco (UPV/EHU), empleándose como apoyo tecnológico al Departamento de Ingeniería Energética de la Escuela de Ingeniería de Bilbao.

Asimismo, dentro de la vigilancia radiológica ambiental se continuará con la instalación en el territorio de la CAPV la nueva red de alerta ante emergencias radiológicas, la cual incorporará once estaciones de detección.

En el marco de la Directriz Básica de Planificación de Protección Civil ante el riesgo radiológico, se continuará con la colaboración con la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Departamento de Seguridad, para el establecimiento y desarrollo de los correspondientes planes especiales de emergencia ante riesgo radiológico.

Las funciones anteriormente enunciadas se ejecutarán dentro del marco legal establecido por el Convenio de Encomienda vigente entre el Consejo de Seguridad Nuclear (CSN) y la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV).

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. INDUSTRIA SEGURTASUNA		**1. SEGURIDAD INDUSTRIAL**
Industria-segurtasuneko arauak bete behar dituzten ekipo, tresna eta instalazioen segurtasun-mailak kontrolatzea, istripu-arriskua ahalik eta txikiena izan dadin. Helburu hori lortzeko, bi gauza egingo ditugu: alde batetik, martxan jarriko direla jakinarazten zaizkigun instalazioen espediente guztiak kontrolatzea formalki, eta haien ehuneko esanguratsu batean ausazko ikuskapenak egitea; eta, beste alde batetik, kontrolatzea ea egiten diren aldian-aldian egin beharreko ikuskaritzak, eta ea instalazioetan edo ekipoetan agertzen diren akatsak zuzentzen diren.		Controlar los niveles de seguridad de los equipos, aparatos e instalaciones sometidas a la reglamentación de seguridad industrial, con el fin de minimizar el riesgo potencial de accidentes en las mismas. Para lograr el citado objetivo se llevarán a cabo dos actuaciones diferenciadas; por una parte, el control formal de todos los expedientes de las distintas instalaciones de las que se comunique su puesta en servicio, así como la realización de inspecciones aleatorias de un porcentaje significativo de las mismas, y por otra parte, el control de la realización de las inspecciones periódicas y de la subsanación de los defectos que pudieran presentar las instalaciones o equipos en servicio.
Hona hemen, jarraian, instalazio-mota bakoitzetik 2022ean zenbat legeztatzea eta haietako zenbat ikuskatzea aurreikusten dugun.		Las previsiones para el ejercicio 2022, en cuanto al número de instalaciones a legalizar y a las inspecciones a realizar de las mismas, serán las siguientes en función de los distintos tipos de instalaciones:
1. Presio-tresnak.		1. Equipos a presión.
1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**400**	1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**20**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
2. Produktu kimikoen biltegiratzea.		2. Almacenamientos de productos químicos.
1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**100**	1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**30**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
3. Kimiko-istripu larrien prebentzioa.		3. Prevención de accidentes químicos graves.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**20**	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako Ikuskapenak.	**20**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
4. Gas-instalazioak.		4. Instalaciones de gas.
1. PGL deposituak.		1. Depósitos de almacenamiento GLP.
1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**150**	1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**40**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
2. Gas-instalazio hartzaileak.		2. Instalaciones receptoras de gas.
1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**250**	1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**60**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
3. PGL-ontziak banatzeko biltegiak.		3. Almacenamiento de envases de GLP para su distribución.
1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako	**250**	1. Previsión de inspecciones puestas en

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
instalazio kopuruaren aurreikuspena.		servicio declaradas.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**60**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
5. Hozteko instalazioak.		5. Instalaciones frigoríficas.
1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**80**	1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**20**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
6. Jasogailuak.		6. Aparatos elevadores.
1. Igogailuak.		1. Ascensores.
1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**2.500**	1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**300**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
2. Dorre-garabiak.		2. Grúas torre.
1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**300**	1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**50**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
7. Instalazio termikoak.		7. Instalaciones térmicas.
1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**5.000**	1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**150**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
8. Industria-instalazioen segurtasun-auditoretza egitea, baita eragile laguntzaileenak ere (enpresa instalatzaile eta mantentzaile egokituak, gas-kontrolerako erakunde eta abarrenak). Horretarako instalazio-mota hautatuko dira, erregelamendu-eremutako desberdinekoak, hain zuzen ere.		8. Realización de auditorías de seguridad de instalaciones industriales, así como de agentes colaboradores (empresas instaladoras y mantenedoras habilitadas, suministradoras de gas, organismos de control, etc.), seleccionándose para ello instalaciones diferentes correspondientes a distintos campos reglamentarios.
2. INDUSTRIA ADMINISTRAZIOA		**2. ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL**
Metrologia eta produktuen segurtasuna osatzen duten zenbait arlori dagokienez, funtsezko helburua izango da sustatzea kontsumitzaileen bermeak eta eskubideak.		En relación con los distintos campos que conforman la Metrología y la Seguridad en productos, el objetivo básico consistirá en potenciar las garantías y derechos de las personas consumidoras.
Beste helburu oinarrizkoa izango da arlo honetan handitzea segurtasun maila ibilgailuetan, erregai likidoetan, suteen aurka eta makinerian.		Otro objetivo básico, en este área, consistirá en incrementar los niveles de seguridad en vehículos, combustibles líquidos, protección contra incendios y seguridad en máquinas.
Horretarako, 2022eko ekitaldian aurreikusitako jarduerak hauexek izango dira arloen arabera:		Para ello, las previsiones de actuación en el ejercicio 2022, serán las siguientes en función de los distintos campos, así:
1. Suteen aurkako babesa.		1. Protección contra incendios.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**700**	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**150**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
2. Industria-establezimenduen erregistroa.		2. Registro establecimientos industriales.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**1.400**	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**500**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
3. Industria-jabetza.		3. Propiedad industrial.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**900**	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**25**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
4. Metrologia.		4. Metrología.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**650**	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**700**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
5. Produktuen kontrola.		5. Control productos.
1. Industria produktuen jarraipena.		1. Seguimiento productos industriales.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**27**	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Produktu energetikoen azterketa eta egiaztapena.		2. Análisis y control de productos energéticos.
1. Ibilgailuentzako petrolio-produktuen aurreikuspena aztertzeke.	**80**	1. Previsión de productos petrolíferos para vehículos a analizar.
6. Makinen segurtasuna.		6. Seguridad máquinas.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**15**	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**110**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
7. Ibilgailuak.		7. Vehículos.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**900**	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako espedienteak ikuskapen teknikoarekin.	**350**	2. Previsión de expedientes con inspección técnica.
8. Erregai likidoak.		8. Combustibles Líquidos.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**320**	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**50**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
3. INSTALAZIO ERRADIOAKTIBOAK		**3. INSTALACIONES RADIACTIVAS**
Instalazio erradioaktiboen eta instalazio horietako langile baimenduen prestakuntzaren kontrola; horrelako instalazioen ezaugarriak eta horiei datxekien arriskua direla-eta, segurtasun-mailak mantentzea eta areagotzea.		Control de las instalaciones radiactivas y la cualificación de su personal de operación autorizado; dadas las características de las mismas y su riesgo inherente, mantener e incrementar sus niveles de seguridad.
Horretarako, hauexek dira 2022eko ekitaldirako aurreikusitako jarduerak:		Para ello, las previsiones de actuación para el ejercicio 2022, son las siguientes:
1. Medikuntzako X izpiak.		1. RX Médicas.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**265**	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**30**	2. Previsión de inspecciones a realizar.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
2. 2. eta 3. mailako instalazioak.		2. Instalaciones 2ª/3ª.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**36**	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**135**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
3. Aurreikusitako aktak eta txostenak.	**285**	3. Previsión de actas e informes a realizar.
3. X Izpietako ekipoen Salmenta eta Laguntza Teknikoko enpresak.		3. Empresas de Venta y A.T. de equipos RX.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**1**	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	**1**	2. Previsión de inspecciones a realizar.
4. Ikuskatzaile- eta langile-lizentziak.		4. Licencias de Supervisor/a y Operador/a.
1. Izapidetu beharreko izapideen aurreikuspena.	**300**	1. Previsión de expedientes a tramitar.
5. Ikuskatzaile- eta langile-ikastaroak homologatzea.		5. Homologación de cursos de Supervisor/a y Operador/a.
1. Egingo diren homologazioen aurreikuspena.	**1**	1. Previsión de homologaciones a realizar.
6. Ikuskatzaile eta operadore prestakuntza ikastaroak.		6. Cursos de formación de Supervisor/a y Operador/a.
1. Aurreikusitako ikuskapenak.	**5**	1. Previsión de inspecciones a realizar.
7. Ingurumeneko Zaintza Erradio-logikoko Estazioak.		7. Estaciones de Vigilancia Radiológica ambiental.
1. Urteko erabilgarritasun-ehunekoa.	**99%**	1. Porcentaje anual de disponibilidad.

PROGRAMA

7214 BERRIKUNTZA ETA LEHIAKORTASUN ESTRATEGIA

ARDURADUNA

05 EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA

TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA ZUZENDARIA

PROGRAMA

7214 INNOVACIÓN Y ESTRATEGIA DE COMPETITIVIDAD

RESPONSABLE

05 DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

DIRECTOR DE TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN

MEMORIA

BERRIKUNTZA

Azken urteotan, globalizazioan nagusi den lehiakortasun-ereduaren ondorioz, ekonomia lider guztiek Berrikuntza ezarri dute garapen-estrategien elementu nuklear gisa. Hala, berrikuntza, hau da, ezagutza epe luzera aberastasun bihurtzeko gaitasuna, negozioko produktuak, zerbitzuak eta prozesuak garatuz edo nabarmen hobetuz, ezinbesteko erronka bihurtu da euskal enpresa-sarearentzat eta, batez ere, ETEentzat.

Europako eskualdeek berrikuntzan duten jarduna aztertzeko Europako Batzordeak erabiltzen duen adierazleak, Regional Innovation Scoreboard 2021 (RIS 2021), Euskadi berrikuntza handiko eskualdea dela erakusten du. Lehen aldiz, Euskadiren errendimendua EBko batez bestekoa baino handiagoa da* (103,6 Euskadi vs.100 EB). Horregatik, Europako Batzordeak "bikaintasun-polotzat" jotzen du Euskadi (Pocket of excellence), hau da, berrikuntza ertaineko herrialde batean berrikuntza handiko eskualdea delako.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana-ZTBP Euskadi 2030 planaren helburu operatiboen artean dago enpresetan I+G eta Berrikuntza jarduerak bultzatzea, bereziki ETEetan, eta ikuspegi sistemiko eta holistiko batetik egitea. Izan ere, berrikuntza, enpresako jarduera puntualetatik harago, prozesu jarraitu eta denboran iraun duen prozesu gisa ulertu behar da. Horrela sendotzen dira berrikuntzak hari ekiten dioten erakundeetan sortzen dituen abantailak eta aukerak, eta, hala, merkatu globalean, etengabe aldatzen ari den egoera batean, posizionatu ahal izatea, modu nabarmenean.

Hori dela eta, enpresa-berrikuntza sustatzeko euskal politikaren helburua ez da soilik Euskadiko ETE berritzaileen kopurua handitzea eta Berrikuntzaren Europako ekosisteman txertatzea, baizik eta bide horiek hasi dituzten enpresak sendotzea ere.

Helburu horiek lortzeko, berrikuntzaren sustapenerako eta

INNOVACIÓN

En los últimos años el modelo competitivo imperante en la ya alcanzada globalización hace que todas las economías líderes establezcan la Innovación como el elemento nuclear de sus estrategias de desarrollo. Así, la Innovación, entendida como la capacidad de transformar el conocimiento en riqueza a largo plazo, mediante el desarrollo o la mejora significativa de productos, servicios y procesos del negocio, se ha convertido en un reto ineludible para el tejido empresarial vasco y principalmente para sus Pymes.

El indicador que utiliza la Comisión Europea para analizar el desempeño en innovación de las regiones europeas, Regional Innovation Scoreboard 2021 (RIS 2021), muestra que Euskadi es una región de alta innovación. Por primera vez, el rendimiento de Euskadi es superior a la media de la UE* (103,6 Euskadi vs.100 UE), Por ello, la Comisión Europea considera a Euskadi un “polo de excelencia” (pocket of excellence), es decir, por ser una región de alta innovación en un país de innovación moderada.

El Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación-PCTI Euskadi 2030, recoge entre sus objetivos operativos el impulsar la actividad de I+D e Innovación en las empresas, especialmente en las Pymes y hacerlo desde un punto de vista sistémico y holístico. Porque la Innovación, más allá de actuaciones puntuales en la empresa, debe ser entendida como un proceso continuado y sostenido en el tiempo. De esta manera se consolidan las ventajas y oportunidades que la Innovación genera en las organizaciones que la acometen, y, así, pueden posicionarse de manera destacada ante un mercado global y en permanente situación de cambio.

Es por ello que la política vasca de promoción de la Innovación empresarial busca no solo el incremento del número de Pymes innovadoras en Euskadi y su inserción en el ecosistema europeo de Innovación, sino también la consolidación de aquellas empresas que ya han iniciado dichas sendas.

Para alcanzar dichos objetivos, la política vasca de

laguntzarako euskal politikak tresna egokiak izan behar ditu. Alde batetik, produktu-, zerbitzu- eta/edo negozioaren prozesuetan berrikuntza-proiektuak katalizatzeko eta laguntzeko bitartekoak izan behar ditugu. Eta, bestetik, Berrikuntza gaitzera, kontzientziatzera eta hedatzera bideratutako jarduerak abiarazi behar ditugu, bai berrikuntzaren beharra, bai berrikuntzaren oinarri diren elementu eta esperientziak.

Era berean, Horizonte Europa deialdietan euskal I+G+Bren parte-hartzea indartzeko, ETEei laguntza emango zaie nazioarteko lankidetzako I+G proiektuetan parte har dezaten.

Euskadi 2030 ZTBPn ere jasotzen da Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen duela planaren indarraldian I+G+Brekin lotutako urteko aurrekontua % 6 handitzeko.

Beraz, egungo egoeran ezinbestekoa da berrikuntzarako laguntza publikoa mantentzea eta indartzea gure erkidegoko industria-jardueretan. Berrikuntza-jarduerei laguntzeak, epe ertain eta luzeko ikuspegitik, behar eta aukera espezifikoei erantzuteko berrikuntza puntualei erantzuteaz gain, enpresen barruan gero eta modu sarriago eta sistematikoagoan, eta anbizio handiagoarekin, berritzeko gaitasunak garatzea ahalbidetuko du.

Horretarako, honako tresna hauek proposatzen dira:

Diru-laguntzen programak, berrikuntzaren esparruan hautemandako merkatu-akatsak arintzeko eta, era berean, berrikuntzan etengabe aktiboak diren enpresak erakartzeko, horietan "berrikuntzaren kudeaketa" sustatuz, berrikuntzari modu sistematiko eta erreplikagarrian heltzeko. Honako prozesu hauek babestuko dira: berrikuntza irekia, hornitzaileak eta/edo bezeroak barne hartzen dituena; Berrikuntza disruptiboa, baldin eta horiek ezartzeak enpresan aldaketa esanguratsuak eragiten baditu; Berrikuntza, produktua eta zerbitzua dibertsifikatzeko, enpresei lehen eskuragarri ez zeuden merkatuetara eta/edo bezeroetara sartzeko aukera emango diena; Prozesu-berrikuntza, enpresei aukera emango diena I+G+Bri laguntzeko nazioarteko programetan sartzeko; Berrikuntza balio-katean eragina duten prozesuetan, erreferentziako euskal enpresen trakzio-efektua aprobetxatuz; eta Berrikuntza I+Gko emaitzen balorizazio-prozesuetan.

Berrikuntzaren Erosketa Publikoa (BEP) sustatzeko plan bat, sektore publikotik berrikuntza eta enpresen lehiakortasuna sustatzeko tresna gisa, tresna tradizionalen osagarri (adibidez, diru-laguntzak eta zerga-pizgarriak). Plan horren helburua da BEPren erabilera sendotzea, gobernuaren kontratazio publikoaren ohiko tresna gisa, eskaintzan zein eskarian duen eragina maximizatuz.

Berrikuntzaren kudeaketa sustatzeko ekintzak, kudeaketa aurreratua sustatuz, kudeaketan dauden enpresen gaikuntza lortzeko, lankidetza sustatzeko eta enpresa horiei proiektu berritzaileak ezartzen laguntzeko beharrezkoak diren gaitasun-maila emateko. Ildo horretan, Euskalit – Kalitatea Sustatzeko Euskal Fundazioari diru-laguntza izendun bat ematen zaio, EAEko industria-sarea osatzen duten enpresetan kudeaketa aurreratuko sistemak ezartzeko.

promoción y soporte a la Innovación precisa disponer de los instrumentos adecuados. Por un lado, debemos disponer de los medios para catalizar y apoyar los proyectos de Innovación en producto, servicio y/o procesos del negocio. Y, por otro lado, tenemos que poner en marcha actividades orientadas a capacitar, concienciar y difundir la Innovación; tanto su necesidad como los distintos elementos y experiencias en los que se sustenta la innovación.

Así mismo, con el objetivo de potenciar la participación de la I+D+i vasca en las convocatorias de Horizonte Europa, se apoyará a las PYMES para que participen en proyectos de I+D de colaboración internacional.

El PCTI Euskadi 2030 también recoge el compromiso del Gobierno Vasco de incrementar un 6% su presupuesto anual vinculado a la I+D+i a lo largo de la vigencia de plan.

Por lo tanto, es imprescindible en la coyuntura actual mantener y potenciar el apoyo público a la Innovación en las actividades industriales de nuestra comunidad. Un apoyo a actividades de innovación que, desde una perspectiva de medio y largo plazo, además de atender a innovaciones de carácter puntual para responder a necesidades y oportunidades específicas, permita desarrollar capacidades dentro de las empresas para innovar cada vez de manera más frecuente y sistemática y con mayor ambición.

Para ello se proponen los siguientes instrumentos:

Programas subvencionales que permitan, por un lado, mitigar los fallos de mercado detectados en el marco de la innovación. Programas que, asimismo, atraigan a empresas activas de forma continua en innovación, fomentando en ellas la “Gestión de la Innovación” para abordar la innovación de forma sistemática y replicable. Se apoyarán procesos de: Innovación abierta, que incorporen empresas proveedoras y/o clientas; así como de Innovación disruptiva, cuya implementación provoque cambios significativos en la empresa; y de Innovación para diversificar en producto y servicio que permita a las empresas acceder a mercados y/o clientes a los que antes no tenía acceso; e Innovación en procesos, que permitan a la empresa acceder a programas internacionales de apoyo a la I+D+i e Innovación en procesos con impacto en la cadena de valor que aprovechen el efecto tractor de las empresas vascas de referencia; y en procesos de valorización de resultados de I+D.

Un plan de impulso de la Compra Pública de Innovación (CPI) como herramienta para fomentar la innovación y la competitividad empresarial desde el sector público, complementaria a los instrumentos tradicionales (como las subvenciones y los incentivos fiscales), que tiene por objetivo consolidar el uso de la CPI como una herramienta ordinaria en la contratación pública del gobierno maximizando el impacto tanto en la oferta como en la demanda.

Acciones para impulsar la gestión de la innovación, mediante la promoción de la gestión avanzada, a fin de lograr la capacitación de las empresas en gestión, fomentar la cooperación y dotar a las mismas de los niveles de competencia necesarios para facilitar la implementación de proyectos innovadores. En esta línea, apoyamos con una subvención nominativa a la Fundación Vasca para el Fomento de la Calidad – Euskalit, con el fin de que se implanten sistemas de gestión avanzada en las empresas que forman el tejido industrial de la CAPV.

Hedapen-ekintzak, eskuragarri dauden bide eta tresnak baliatuta, euskal enpresa-sektoreari joera eta errealitate berriak transmititzea ahalbidetuko dutenak. Sektore horri, bere posizioaz eta irekitzen zaizkion aukerez jabetzen laguntzeko eta hartu behar dituen erabakien ziurgabetasunak murrizteko.

Prestakuntza-tresnak, erakundeetako pertsonengan berrikuntzaren kultura eta proiektu partekatu bateko kide izatearen sentimendua finkatzen dutenak, haien ezagutzak, trebetasunak eta abileziak zabalduz. Eta, ondorioz, ahaldundu egingo ditu erantzukizunak beren gain hartzeko, erabaki eraginkorrak hartzeko eta arazoak konpontzeko; beren gogobetetzea, motibazioa eta parte-hartzea areagotu, lan egiteko modua hobetu eta teknologia digital berrien erabilera areagotu eta enpleguen segurtasuna handitu.

Acciones de difusión que, aprovechando los diferentes canales e instrumentos disponibles, permitan transmitir al sector empresarial vasco las nuevas tendencias y realidades, a fin de ayudarle a tomar conciencia de la posición que ocupa, las oportunidades que se le abren y reducir la incertidumbre para la toma de decisiones a adoptar.

Instrumentos formativos que asienten en las personas de las organizaciones una cultura de la Innovación y el sentimiento de pertenencia a un proyecto compartido, ampliando sus conocimientos, habilidades y destrezas. Y, en consecuencia, les empodere para asumir responsabilidades, tomar decisiones eficientes y resolver problemas, aumente su satisfacción, motivación y participación, mejore la forma de trabajar y el uso de nuevas tecnologías digitales e incremente la seguridad de sus empleos.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
BERRIKUNTZA		**INNOVACIÓN**
ETEetan berrikuntza lehiakortasuna hobetzeko funtsezko elementu gisa garatu eta integratu ahal izateko jarduerak bultzatzea.		Impulsar en las pymes la realización de actividades que permitan desarrollar e integrar la Innovación como un elemento esencial de la mejora de su competitividad.
LAGUNTZA-PROGRAMAK		**PROGRAMAS DE APOYO**
INNOBIDEAK: produktu/zerbitzuan eta negozioaren prozesuetan berrikuntza-proiektuak sustatzea (ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena, banaketa eta logistika, marketina eta salmentak, informazio- eta komunikazio-sistemak, administrazioa eta kudeaketa eta produktuaren eta negozioaren prozesuen garapena), eta, horrela, Berrikuntzaren Kudeaketa txertatzea ahalbidetzen duten gaitasunak garatzea.		INNOBIDEAK: Promover proyectos de innovación en producto/servicio y en los procesos del negocio (producción de bienes y servicios, distribución y logística, marketing y ventas, sistemas de información y comunicación, administración y gestión y desarrollo de producto y de procesos de negocio) y, asimismo, desarrollar capacidades que les permitan incorporar la Gestión de la Innovación.
Produktuaren/zerbitzuaren-berrikuntzan onartutako Onartutako proiektuen kopurua.	**36**	N. proyectos aprobados (Innovación en producto/servicio.
Prozesuen-berrikuntzan onartutako proiektuen kopurua (horietatik 5 Horizonte Europako deialdietako partaidetzak prestatzeko izango dira).	**144**	N. proyectos aprobados (Innovación en procesos) (de los cuales, 5 serán de preparación de participaciones en convocatorias de Horizonte Europeo).
HAZINNOVA: enpresa txikietan berrikuntza sustatzeko programa, hurbileko eragileekin lankidetzan.		HAZINNOVA: Programa de impulso de la innovación en la pequeña empresa en colaboración con agentes de proximidad.
Onartutako proiektuen kopurua.	**500**	Número de proyectos aprobados
BDIH-KONEXIO: Basque Digital Innovation Hub-eko azpiegituretan eta Europako beste DIH batzuetan teknologia digital eta jasangarriak esperimentatu, probatu eta baliozkotzeko laguntza-programa.		BDIH-KONEXIO: Programa de apoyo a la experimentación, testeo y validación de tecnologías digitales y sostenibles en las infraestructuras del Basque Digital Innovation Hub y en otros DIHs europeos.
Onartutako proiektuen kopurua.	**80**	Número de proyectos aprobados.
BERRIKUNTZAREN EROSKETA PUBLIKOA Sektore publikoaren erronkei erantzutea, merkatuan oraindik ez		COMPRA PUBLICA DE INNOVACION. Dar respuesta a retos del sector público a través del desarrollo de

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
dauden irtenbideak garatuz.		soluciones que aún no existen en el mercado.
Merkaturatu aurreko kontsulta-kopurua.	**3**	N. de Consultas Preliminares al Mercado.
Sustatutako baldintza-agirien kopurua.	**1**	N. de Pliegos promovidos.
BERRIKUNTZAREN KUDEAKETA SUSTATZEA. Enpresa-berrikuntza eta -lehiakortasuna sustatzeko ekintzak, kudeaketa aurreratua sustatuz.		FOMENTO DE LA GESTION DE LA INNOVACION. Acciones de fomento de la innovación y la competitividad empresarial a través de la promoción de la gestión avanzada.
Kudeaketa aurreratuko kanpo-kontrasteak erakundeetan. EGINDAKOAK	**215**	Contrastes externos de Gestión Avanzada en las Organizaciones. REALIZADOS.
Kudeaketa aurreratuko, berrikuntzako eta lehiakortasuneko proiektu pilotuak (2 A fasea). ONARTUTAKO proiektu-kopurua.	**70**	Proyectos Piloto en Gestión Avanzada, Innovación y Competitividad (Fase 2 A). Número de proyectos APROBADOS.
HEDAPENA		**DIFUSIÓN**
INDUSTRIA ADIMENDUA: erreferentziazko topaketa.		INDUSTRIA INTELIGENTE: Encuentro de Referencia.
Ekitaldia egitea.	**1**	Ekitaldia egitea.
PRESTAKUNTZA		**FORMACIÓN**
PRESTAKUNTZA. Prestakuntza: berrikuntzaren oinarrizko alderdiei buruzko prestakuntza-ekintzak (Kudeaketa Aurreratua, Negozio Ereduak, etab.).		PRESTAKUNTZA. Acciones formativas en aspectos básicos de innovación (Gestión Avanzada, Modelos de Negocio, …).
Berrikuntzako Oinarrizko Prestakuntzan parte hartu dutenen kopurua. (Estimatua: 240 emakume eta 360 gizon).	**600**	N. de asistentes en Formación Básica de innovación. (Estimado 240 mujeres y 360 hombres).

PROGRAMA

7311 ENERGIA ETA MEATZE POLITIKA ETA GARAPENA

ARDURADUNA

05 EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA

PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA INDUSTRIA ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIA

PROGRAMA

7311 POLÍTICA Y DESARROLLO ENERGÉTICO Y MINERO

RESPONSABLE

05 DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

DIRECTOR DE PROYECTOS ESTRATÉGICOS Y ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL

MEMORIA

ENERGIA

Energiaren arloan hiru ardatz nagusik baldintzatzen dituzte Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren jarduerak: 2030erako Euskadiko Energia Estrategiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak eta, azkenik, energia sortzeko, garraiatzeko, banatzeko eta kontsumitzeko instalazioak.

2030erako Euskadiko Energia Estrategia (3E-2030) erakunde-politika bat da, gure Erkidegoaren energia-premia espezifikoetatik abiatuta, nazioarteko eta estatuko joera eta gidalerro nagusiekin bat datorrena, ahaztu gabe estatuko energia-sistemaren eta Europako merkatu baten parte garela, eta bete beharreko eta bete nahi ditugun konpromisoak eskatzen dizkigutela.

Estrategia horrek ikuspegia eta agertokiak planteatzen ditu 2030erako Euskadiren energia-esparruan, eta bete beharreko helburu zehatzak ezartzen ditu. Horretarako, zortzi jarduera-ildo ezartzen ditu hobekuntzetarako, kontsumoak murrizteko, sustatzeko, bultzatzeko eta, azkenik, gainbegiratzeko.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak jasangarritasun energetikoaren esparru juridikoa ezartzen du, bai euskal administrazio publikoen eremuan, bai sektore pribatuaren eremuan. Bietarako, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko eta ezartzeko neurriak bultzatzera bideratutako eginbeharrak eta betebeharrak artikulatzen ditu.

Testuinguru horretan, denbora-irizpide zehatzei lotutako oinarrizko helburuak eta neurri espezifikoak ezartzen ditu, eta horietako batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu beharko dira 2022. urtean.

Estrategiak eta Legeak ezarritako helburuak lortzeko Euskal Administrazio Publikoek duten inplikazioa funtsezkoa da, batez ere gainerako sektoreetan (pribatua,

ENERGÍA

Tres ejes principales condicionan las actuaciones de la Dirección de Proyectos Estratégicos y Administración Industrial en el área de la Energía: la Estrategia Energética de Euskadi 2030, la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca y, finalmente, las instalaciones energéticas de generación, transporte, distribución y consumo.

La Estrategia Energética de Euskadi 2030 (3E-2030) se configura como una política institucional que, partiendo de las específicas necesidades energéticas de nuestra Comunidad, está en línea con las principales tendencias y directrices internacionales y estatales, todo ello sin olvidar que formamos parte del sistema energético estatal y de un mercado europeo que nos exigen compromisos que debemos y queremos cumplir.

Dicha estrategia plantea, en el ámbito energético de Euskadi para el año 2030, la visión y los escenarios y establece objetivos concretos a cumplir. Para ello, establece ocho líneas de actuación en mejoras, reducciones de consumos, promoción, fomento e impulso, y, finalmente, supervisión.

A su vez, la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca establece el marco jurídico de la sostenibilidad energética, tanto en el ámbito de las administraciones públicas vascas como en el del sector privado. Para ambos articula deberes y obligaciones orientados al impulso de medidas de ahorro y eficiencia energética, y de promoción e implantación de energías renovables.

En este contexto, establece objetivos básicos y medidas específicas vinculadas a criterios temporales concretos, algunas de las cuales deberán materializarse en la Comunidad Autónoma en el año 2022.

La implicación de las Administraciones Públicas Vascas en la consecución de los objetivos marcados por la Estrategia y la Ley resulta esencial, fundamentalmente por el papel

bizitegikoa, merkataritzakoa eta industriakoa) duten zeregin eredugarriagatik. Horregatik, Europako zuzentarauekin bat etorriz, Administrazioak bere instalazioen dinamizazioan, sustapenean eta hobekuntzan izan behar duen eginkizun garrantzitsua azpimarratu nahi da. Horretarako, energia kudeatzeko sistemen ezarpena bizkortzea, Euskal Administrazio Publikoaren eraikinen berritze-tasa bizkortzea eta energia-kontsumo ia nuluko eraikinen ezarpena ere azpimarratu beharko dira, bai eta garraio publikoa eta parkeko energia alternatiboak erabilera sustatzea ere.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza da, zehazki, lege hau betetzen dela sustatzeko, garatzeko eta jarraipena egiteko arduraduna. Horretarako, araudia garatu behar du, datu-baseak diseinatu eta mantendu behar ditu, eta zerrendatutako espediente guztiak izapidetu behar ditu, bai eta eragindako sektore eta eragile guztiak kontrolatu, zabaldu, sentsibilizatu eta prestatu ere.

Era berean, Sailean bertan, sustatu eta kontrolatu behar du betetze hori. Horren adibide da jarduketa-unitateei esleitutako eraikinetan energia-kontsumoak kontrolatzeko eta erregistratzeko plataforma ezartzea, energia-kontagailuak aldatzea eta horiek monitorizatzeko eta kontrolatzeko aplikazio informatikoak barne.

Bestalde, eta Estrategiarekin eta Legearekin bat etorriz, kontsumo-sektoreetan energia aurreztea eta efizientzia sustatzea helburu duten sustapen-jarduerekin jarraituko da, gure industriaren lehiakortasuna areagotzeko, energia-eraginkortasuneko eta energia berriztagarrietako teknologia berriak txertatzearen bitartez.

ETEetan eta enpresa handietan energia-eraginkortasuna hobetzeko Laguntza-Programaren helburua da, hain zuzen ere. Programa horren kudeatzailea Zuzendaritza hau da, eta haren iraupena 2023. urtetik harago luzatu da.

Energia berriztagarriak sortzeko eta erabiltzeko jarduera berritzaileentzako laguntzak ere aurreikusten dira, energia-azpiegiturak hobetzera bideratuta egongo direnak.

2022an ere, Euskadiko Energia Berriztagarrietarako Lurralde Plan Sektoriala izapidetzen jarraituko dugu. Gobernuaren energia-helburuei erantzun beharko die, baina lurralde-baldintza eta ingurumen-baldintza guztiak kontuan hartuta betiere.

Beste kapitulu bat eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriari buruzkoa da. Eraikinen energia-ziurtapenaren arloko eskakizunak, 2002/91/EE eta 2010/31/EB Zuzentarauen ondoriozkoak, otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuan jaso ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol- eta erregistro-prozedurari buruzkoa.

Eraikinen ziurtapen egokia eraginkorra izan dadin, zuzendaritza honek tutoretza eta kontrol zuzen eta jarraitua egin behar du. Zuzendaritzak atxikita dauka erregistroa, eta bera arduratzen da ziurtagiriak eta tartean diren agenteak ikuskatzeaz eta kontrolatzeaz, hala nola ziurtapen-teknikariak, kontrol-agenteak, jabetza-erregistratzaileak eta higiezin-agentziak.

ejemplarizante que ejercen en el resto de sectores: privado, residencial, comercial e industrial. Por ello, se pretende también, acorde con las Directivas Europeas, acentuar el importante papel que la Administración debe tener en la dinamización, promoción y mejora de sus instalaciones, lo que exigirá poner el énfasis en acelerar la implantación de sistemas de gestión energética en las mismas, acelerar también la tasa de renovación de edificios de la Administración Pública Vasca y la implantación de edificios de consumo de energía casi nulo; así como fomentar el transporte público y la utilización de energías alternativas en el parque móvil.

La Dirección de Proyectos Estratégicos y Administración Industrial es, en concreto, la responsable de la promoción, desarrollo y seguimiento del cumplimiento de esta Ley. Para ello, debe acometer el desarrollo normativo, el diseño y mantenimiento de las bases de datos y las tramitaciones de todos los expedientes relacionados, así como las labores de control, difusión, sensibilización y formación a todos los sectores y agentes afectados.

A su vez, debe de impulsar y controlar la materialización de ese cumplimiento en el propio Departamento. Este es el caso de la implantación de la plataforma de control y registro de los consumos energéticos en los diferentes edificios asignados a sus unidades de actuación, que incluye el cambio de sus contadores de energía y las aplicaciones informáticas para su monitorización y control.

Por otra parte, y en línea con la Estrategia y la Ley, van a continuar las actuaciones de fomento encaminadas a promover el ahorro y la eficiencia energética en los distintos sectores consumidores, incrementando la competitividad de nuestra industria mediante la incorporación de nuevas tecnologías de eficiencia energética y energías renovables.

Ese es precisamente el objetivo del Programa de Ayudas a la mejora de la eficiencia energética en PYMEs y grandes empresas, del que esta Dirección es el órgano gestor, y cuya duración ha sido ampliada hasta más allá del ejercicio 2023.

También se presupuestan ayudas a actuaciones innovadoras de generación y uso de energías renovables, que irán orientadas a las mejoras de infraestructuras energéticas.

Así mismo, en 2022 continuaremos con la tramitación del Plan Territorial Sectorial para las Energías Renovables en Euskadi, el cual, teniendo en cuenta todos los condicionantes territoriales y medioambientales, deberá dar respuesta a los objetivos energéticos antes mencionados.

Capítulo aparte es el relativo a la certificación de la eficiencia energética de los edificios. Las exigencias en materia de Certificación Energética de los Edificios derivadas de la Directivas 2002/91/CE y 2010/31/UE, se reflejaron en el Decreto 25/2019, de 26 de febrero, de certificación de la eficiencia energética de los edificios en la Comunidad Autónoma del País Vasco, su procedimiento de control y registro.

La efectividad de la correcta certificación de los edificios requiere de una actuación de tutela y control directa y continuada por parte de esta Dirección, que tiene adscrito el registro y es la responsable de la inspección y control de los certificados y de los agentes implicados, como personas técnicas certificadoras, agentes de control, registradoras de la propiedad y agencias inmobiliarias.

Beste kapitulu bat auditoretza energetikoen inskripzioa eta kontrola da. 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duen 56/2016 Errege Dekretua betez, Zuzendaritzak enpresa handien energia-auditoretzen erregistroa garatu eta kudeatu behar du. Horretarako, datuen jarraipena, errekerimenduak, ikuskapena eta komunikazioa egiten dira.

Energia-azpiegituren arloan, bai Sailak berak zuzenean, bai Energiaren Euskal Erakundearen bidez, energia-horniduraren sistema hobetzeko oinarrizko helburuari erantzungo dioten azpiegitura berriak bultzatzen, sustatzen edo gauzatzen parte hartzen saiatuko da, energia-hornidura kalitatean eta kantitatean bermatzeko, eta berrikuntza-ekintzak eta efizientzia hobetzeko ekintzak abiarazteko eraikinen energia-kontsumoen kontrolean eta energien aprobetxamenduan.

Azkenik, energiaren arloko aurrekontu-programa honi dagokionez, 2022an energia-instalazioen arloan garatu beharreko jarduerak aipatu behar dira. Zuzendaritzaren eskumenak dira, besteak beste, goi-tentsioko garraio eta banaketako linea eta instalazio elektrikoak eta gasa garraiatzeko eta banatzeko sareak planifikatzea, arautzea eta gainbegiratzea.

Halaber, behe-tentsioko eta elektrizitatea sortzeko, energia berriztagarriko eta autokontsumoko instalazioen araudia garatzen eta gainbegiratzen du. Instalazio asko daudenez eta autonomia-erkidego osoan eragin handia dutenez, koordinazio-lan handia egin behar da inplikatutako eragile guztiekin, energia banatzen eta garraiatzen duten enpresekin, instalatzaile eta teknikariekin, kontrol-erakundeekin eta beste autonomia-erkidego batzuetako eta Estatuko administrazioko erakunde homologoekin.

Energia-instalazio horien guztien baimenei dagozkien administrazio-erregistroen tamaina eta antzinatasuna kontuan hartuta, erregistratutako datuen garbiketari ekin behar zaio, datu horiek eguneratzeko eta instalazioen segurtasuna hobeto kontrolatzeko.

Otro capítulo más es el de inscripción y control de auditorías energéticas. En cumplimiento del R.D. 56/2016, de trasposición de la Directiva 2012/27/UE, la Dirección debe desarrollar y gestionar el registro de auditorías energéticas de grandes empresas. Para ello se realizan labores de seguimiento, requerimientos, inspección y comunicación de datos.

En el área de las infraestructuras energéticas, se tratará, bien directamente desde el propio Departamento, bien a través del Ente Vasco de la Energía, de favorecer, fomentar o participar en la ejecución de nuevas infraestructuras que den respuesta al objetivo básico de mejorar el sistema de abastecimiento energético, para garantizar el suministro energético en calidad y cantidad y para emprender acciones de innovación y de mejora en la eficiencia energética, en el control de los consumos energéticos de los edificios y en el aprovechamiento de energías renovables.

Por último, como afección a este programa presupuestario dentro del área de energía, caben reseñar las actuaciones a desarrollar durante 2022 en el ámbito de las instalaciones energéticas. Las competencias de la Dirección abarcan, entre otras, la planificación, reglamentación y supervisión de las líneas e instalaciones eléctricas de transporte y distribución alta tensión y de las redes de transporte y distribución de gas.

Así mismo, se acomete el desarrollo normativo y supervisión de las instalaciones de baja tensión y de generación eléctrica, energía renovables y autoconsumo. El elevado número y la relevancia de estas instalaciones conllevan un importante trabajo de coordinación y relación con todos los y las agentes implicados, empresas distribuidoras y transportistas de energía, empresas instaladoras y personas técnicas, organismos de control, y organismos homólogos de otras comunidades autónomas y de la administración estatal.

Dado el tamaño y antigüedad de los registros administrativos que corresponden a las autorizaciones de todas esas instalaciones energéticas, es necesario emprender la depuración de sus datos registrados con objeto de su actualización y un mejor control de la seguridad de las mismas.

MEATEGIAK

Euskadiko meatze-sektorea gure garapen ekonomiko eta sozialerako funtsezko sektore estrategikoa da. Ateratako baliabidea eraikuntzan, industrian eta eguneroko bizitzako aplikazio askotan erabiltzen da. Garapen teknologikorako eta gure biztanleriaren ongizaterako beharrezko baliabide gehienak ematen ditu.

Horretarako, euskal meatze-politika meatze-baliabideekiko sarrera iraunkor eta lehiakorra bermatzean oinarritzen da, eskariaren estaldura bermatuz, aprobetxamendu efiziente baten bitartez eta ingurumenaren zaintzaren bitartez.

1. Zuzendaritzaren eta zerbitzu teknikoen lan-jarduna harrobietako, erauzketa-jardueretako eta ustiategiak uzteari lotutako segurtasunaren eta egonkortasunaren arloko lehentasunezko jarduketetara bideratuta egongo da. Beraz, administrazioen arteko koordinazioa behar duten jarduketetan administrazio-lanak egingo dira, baldin eta lehentasunezkoak badira; besteak beste, jardun ahal

MINAS

El sector extractivo en Euskadi es un sector estratégico y esencial para nuestro desarrollo económico y social. El recurso extraído se utiliza en la construcción, en la industria y en numerosas aplicaciones de la vida cotidiana. Provee de la mayor parte de los recursos necesarios para el desarrollo tecnológico y bienestar de nuestra población.

